



ALKIZAKO UDALA

**UDALBATZARRAK 2021eko URRIAREN 26an EGINDAKO OHIKO
SBILKURAREN AKTA**

2021eko urriaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Concepcion Soria Legua

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Koldobika Jauregi Zinkunegi eta Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ 2021eko irailaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Kultur etxearen beheko solairuan kokatua dagoen etxebizitza alokairuan esleitzeko oinarrien onespena, hala bada.**
5. **2/2021 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada.**
6. **Eskolaz kanpoko ikastaroen esleipenak, hala bada.**
7. **Beste batzuk.**
8. **Moziok, erreguak eta galderak.**

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2021eko irailaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.



ALKIZAKO UDALA

Aktak Udaletzeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 181/2021etik 184/2021ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

CARPINTERIA ATARI	88,33
INFOBIBLIOTECAS	157,00
PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	1.262,50
PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	355,00
EBA ERKIZIA	2.138,23
BABESA SUZAI	60,75
GUREAK	215,50
QUISER	382,52
GOIENER	32,39
GOIENER	13,49
GOIENER	111,72
GOIENER	38,07
GOIENER	225,35
GOIENER	24,11
GOINER	11,83
GOINER	67,23
GOIENER	24,90
GOIENER	937,33
GOIENER	19,17
GOIENER	321,85
GOIENER	3,74
GOIENER	393,79
GOIENER	49,18
GOIENER	55,30



ALKIZAKO UDALA

SOLRED	103,00
EUSKAL HOTZ	3.475,12
OSCAR GALINDO	121,00
DIONISIO ORMAZABAL	20,47
GASOLEOS ALKORTA	15,00
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA	160,00
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA	280,00
EUSKAL HOTZ	1.040,60
CORREOS	3,83
ANTONIO ELOSEGUI	42,64
ORANGE	20,15
GARAJE IBARRA	805,76
EÑAUT EIZAGUIRRE	242,00
OTIS	443,44
MAQUELSA	54,01
ARGITU	166,11
AKETEGI	54,00
OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK	10.176,26

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **24.212,67** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ERRETORE ETXEKO BEHE OINEAN KOKATUTA DAGOEN ETXEBIZITZA ALOKAIRUAN ESLEITZEKO ONARRIEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Erretore Etxeko behe oinean kokatuta dagoen etxebizitza, Udalaren jabetzakoa, hutsik dagoela.

Ikusirik, Alkizako Udalak interesa duela Erretore Etxeko behe oinean kokatuta dagoen etxebizitza alokatzeko, horretarako dagozkion oinarriak prestatu dira.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA

LEHENA: Erretore Etxeko behe oinean kokatuta dagoen etxebizitza alokairuan esleitzeko dagokion deialdia egiteko onespena ematea.

BIGARRENA: Erretore Etxeko behe oinean kokatuta dagoen etxebizitza alokairuan esleitzeko prestaturiko oinarriak onestea.

BOSTGARREN PUNTUA

2/2021 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Udal honen 2021 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko 1/2021 kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapituluka ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen	<u>Azalpena</u>	Kredituak
----------------	------------------------	------------------



ALKIZAKO UDALA

partida		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.210.165.00.01 2021	ARGITERI PUBLIKOAREN MANTENTZEA	500,00	500,00	1.000,00
1 0000.211.320.00.01 2021	ESKOLAKO KONPONKETAK	500,00	2.500,00	3.000,00
1 0000.211.920.00.01 2021	UDAL ERAIKINEN KONPONKETAK	2.500,00	1.000,00	3.500,00
1 0000.215.920.00.01 2021	INFORMATIKAKO MATERIALA	1.100,00	300,00	1.400,00
1 0000.221.161.00.01 2021	UR BOMBA ARGINDARRA	5.000,00	2.100,00	7.100,00
1 0000.221.165.00.01 2021	KALEKO ARGINDARRA	2.500,00	1.150,00	3.650,00
1 0000.221.166.00.01 2021	FOSAKO ARGINDARRA	1.240,00	450,00	1.690,00
1 0000.221.230.00.03 2021	DON JUANENA GASA	1.200,00	100,00	1.300,00
1 0000.221.920.00.09 2021	GARBIKETA PRODUKTUAK	2.000,00	800,00	2.800,00
1 0000.221.929.00.01 2021	Eliza argindarra	0,00	600,00	600,00
1 0000.231.912.00.01 2021	UDALKIDEEN DIETAK, LOKOMOZIO	500,00	100,00	600,00
1 0000.332.920.00.01 2021	kreditu kontuaren interesak	200,00	300,00	500,00
1 0000.369.920.00.01 2021	finantza gastuak	110,00	100,00	210,00
1 0000.421.330.00.01 2021	AIZTONDO MANKOMUNITATEA- KULTURA	3.000,00	1.000,00	4.000,00
1 0000.481.340.00.03 2021	TXIRRINDULARITZA DIRULAGUNTZAK	2.601,00	8,00	2.609,00
1 0000.622.150.00.02 2021	udal eraikinen berrikuntza lanak	15.923,25	7.700,00	23.623,25
1 0000.627.342.00.01 2021	PLAKA FOTOBOLTAIKOEN PROIEKTUA	0,00	2.100,00	2.100,00



ALKIZAKO UDALA

1 0000.625.330.00.02 2021	ordenagailua kultura	0,00	796,00	796,00
1 0000.623.340.00.02 2021	Frontoiko argindarra egokitzapena	0,00	3.086,00	3.086,00
1 0000.226.332.10.06 2021	LIBURUTEGIAN BURUTZEN DIREN JARDUERAK	1.200,00	110,00	1.310,00
1 0000.601.153.20.01 2021	herri bideak konponketak	9.600,00	576,00	10.176,00
GUZTIRA		49.674,25	25.376,00	75.050,25

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 0000.421.230.00.01 2021	AIZTONDO MANKOMUNITATEA- G.Z	1.000,00
a	2 0000.870.000.00.01 2021	KREDITU GERAKINA 2020	24.376,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			25.376,00

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

SEIGARREN PUNTUA

ESKOLAZ KANPOKO IKASTAROEN ESLEIPENAK, HALA BADA

Kontuan hartuta Alkizako udalerrian 2021-2022 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikulua arabera.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Itziar Uzkudun Sarasola andreari esleitzea, Alkizako herrian 2021/2022 ikasturterako dantza klaseak eman ditzan. Guztira, **800,00€ (BEZa salbuetsita)** kopuruko gastua izanik. 2021eko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Itziar Uzkudun Sarasola andrearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2021-2022 ikasturtean zehar, 2021eko urriaren 14tik 2022ko ekainak 23arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan dantza eskolak emateko, ordu bakoitzeko 25,00 euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita.

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2021-2022 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 32 izango dira. Hori guztira, 800,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Edurne Ayuso Apaolaza Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

ZAZPIGARREN PUNTUA



ALKIZAKO UDALA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

7.1. ESKOLAZ KANPOKO IKASTAROEN ESLEIPENAK, HALA BADA

Kontuan hartuta Alkizako udalerrian 2021-2022 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emandakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikuluaen arabera.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Izaskun Lazkano Gorostiaga andreari esleitzea, Alkizako herrian 2021-2022 ikasturterako Eskulanei buruzko klaseak eman ditzan. Guztira, **1.805 € ko (BEZa salbuetsita)** kopuruko gastua izanik.

2021eko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.337.20.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Izaskun Lazkano Gorostiaga andrearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2021-2022 ikasturtean zehar, 2021eko urriaren 6tik 2022ko ekainaren 22ra arte, Kultur Etxean eskolak emateko, ordu bakoitzeko 50€ko euroko prezioagatik, BEZa salbuetsita. Horri ikasle bakoitzeko 20-€ kopurua gehituko zaio materiala erosteko. Ikasturterako 7 ikaslek eman dute izena, hortaz, 140-€ko kopurua gehituko da materiala erosteko.



ALKIZAKO UDALA

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2021-2022 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 33 izango dira. Hori guztira, 1.805 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da (BEZa salbuetsita eta materialetarako kopurua aintzat hartuta)

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Edurne Ayuso Apaolaza Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

7.2. ADUNA, ASTEASU, ALKIZA ETA LARRAULGO UDALETXEN ARTEAN DUTEN ESZENATOKI AMANKOMUNAREN MANTENIMENDU EGOKIRAKO EGINDAKO PROPOSAMENEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusita Aduna, Asteasu, Alkiza eta Larraulgo Udalek amankomunean duten eszenatokiaren mantenua eta gordetzeko ardura Asteasuko Udalak duela.

Ikusita, Asteasuko Alkate andreak Aduna, Alkiza eta Larraulgo udal ordezkari adierazten diela, eszenatokia erabiltzen den baikoitzean egoera txarrean bueltatzen dela, piezak hausita, kaiolatan sartu behar diren piezak gaizki jasota..... ondorioz Asteasuko udal langileak hauek ondo jarri beharrean aurkitzen dira. Beraz, Asteasuko Alkatesak adierazten du, ez bada konponbide bat aurkitzen Asteasuko Udalak eszenatokia gorde eta hau egoera onean mantentzeko erantzunkizuna uzteari ekingo diotela.



ALKIZAKO UDALA

Asteasuko Alkatesaren eskaerari irtenbide bat bilatu nahian, Adunako Alkateak ondorengo proposatzen du:

Aduna, Asteasu, Alkiza eta Larraulgo herrietan eszenatokia muntatu eta desmuntatu behar den aldiro, lau herrietako udal brigadak egitea (herri bakoitzetik bat).

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aduna, Asteasu, Alkiza eta Larraulgo herrietan amankomunean duten eszenatokia muntatu eta desmuntatu behar den aldiro, lau herrietako udal brigadak egitea (herri bakoitzetik bat).

ZORTZIGARREN PUNTUA

MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

8.1. EUSKO JAURLARITZAK SUSTATUTAKO MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALA "JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA" MOZIOAREN ONESPENA

Ikusirik, Eusko Jaurlaritzak sustatutako Migraziorako Euskal Itun Soziala "Jaso nahiko genukeena eskaintzea" mozioa aurkeztu duela, non ondorengo dioen:

" JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA"

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorkinek, asilo-eskatzailleek, Bidaiderik Gabeko Adingabe eta Gazte Atzerritarrek, iragaitzazko migratzaileek edo zaugarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bermatu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonetako erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeak aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da *besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna*. Migrazioari dagokienez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.



ALKIZAKO UDALA

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du, herrialderik aberatsenak migrazio fluxuak eta kultura aniztasuna modu egokian integratzen jakin izan dutenak dira.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamatutako aurreiritziek errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredia eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabean. Sintoma kezkarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitopenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migrazioarako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharriari dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiarean sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabide- prozesuaren parte gisa heltzea.

ABIAPUNTUAK. Migrazioarako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, entitate eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu.

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri euskal gizartea defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa etikoa: elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatu gisa.

C. Premisa pragmatikoa: beharriari. Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharriari erantzun ahal izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetako hazkunderari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.

ZEHARKAKO AUKERAK. Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:

I. Bizikidetzaren. Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuia egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.

II. Giza Eskubiak. Oinarrizko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororen aurrean.

III. Zehakakotasuna. Euskal administrazioen sektore-politikan (enplegua, kultura, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna....) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.



ALKIZAKO UDALA

IV. Kohesioa. Irrotasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarrizko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.

V. Hezkuntza. Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integrazioarako eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.

VI. Tokiko esparrua. Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzaren hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehentasuneko balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.

VII. Berdintasuna. Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzaren eraikitze oinarrizko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politikan eta gizarte babeseko politikan genero ikuspegia modu eraginkorrean sartzean gauzatzen da.

VIII. Hizkuntzak. Gizarte hartzaileko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integrazioarako eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarrekin egotearen zeregina indartzea, elkarriketa eta lankidetzaren iraunkorreko mekanismoak ezarriz, migratzaileen erakundeek harreran eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

IX. Lankidetzaren. Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehentasuna sustatzen dugu. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetzaren. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

KONPROMISO ZEHATZAK. Aurreko guztiaz, erabateko babesa ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapenera, dagozkien eskumen-esparruetan:

1. Erantzukidetasuna. Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, EB osoan erantzukidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzaren leialdean aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.

2. Irrotasuna. Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektoralak lortu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.

3. Immigrazio erregularizatua. Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotzeko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografikoak Europan planteatzen dituen beharrezkoak.

4. Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak. Nazioarteko babes-eskatzaileen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea, Europan, estatuan eta Euskadin.

5. Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarri emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketen biktimengan.



ALKIZAKO UDALA

6. Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzak migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuen alde egiteko.

7. Bidaiderik Gabeko Adingabe Atzerritarrak (BGAA) eta Bidaiderik Gabeko Gazte Atzerritarrak (BGGa). Behar diren baliabideak edukitzea, legezko betebeharreri, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatatu, bidezko eta egokia eskaintzeko.

8. Esku-hartze humanitarioa. Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.

9. Prebentziozko esku-hartzea. Lankidetzaproiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobrezia, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.

10. Bizikidetzaren kultura. Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuia.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eusko Jaurlaritzak sustatutako Migraziorako Euskal Itun Soziala "Jaso nahiko genukeena eskaintzea" mozioa bere osotasunean onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzari ematea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.50etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

